

Haizeak abestuko du nire istorioa

Juan Iturbe

Ni naiz Ngoro. Nire amamak auresan zuen bide-bilatzailea izango nintzela. Haizean entzuten zituen istorioak kontatzen zizkidan eta horrela ikasten nituen.

Orain denbora luze, ibaiak ura ekartzeari utzi zion eta aldearen gainean sikate handia etorri zen. Xamanak espirituak kontsultatu zituen eta erantzuna ekarri zuen: “Kararé urak askatzera joatekoa da”. Honek erantzun zuen: “Oraindik mutiko naiz, eta ez dut mundua ezagutzen. Zama astunegia ez ote den beldur naiz”. Xamanak esan zion: “Zureganako konfiantza dugu, aldeak behar zaitu eta joan behar duzu. Aurkituko duzu laguntza ibilian”. Eta Kararék bideari ekin zion.

Nire aldea oso txiroa da. Denentzat ez dago janaria nahikoa eta ura ere urria da. Bide-bilatzailea naiz, eta nigandik espero da, besteen ordeztu, irtetea eta aurkitzea. Eta hori egin nuen, nire aurretik beste batzuk egin zuten moduan eta ondoren beste batzuk egingo duten moduan.

Kararé alboko aldeara iritsi zen, berenarekin diferentziak mantentzen zituena. Arretaz galdetu zien: “Zuek jakin badakizue zergatik ibaiak urrik ez dakarren eta zergatik putzuak siku dauden?” Aldeako biztanleek erantzun zioten: “Ez, ez dakigu. Guk geuk ere gosea eta egarria pairatzen ditugu”. “Horrenbestez, nire bilaketan segitu behar dut”. Bertokoek bilera egin eta esan zioten: “Nahiz eta zure aldeakoekin iskanbiletan aritzen garen sarritan, sikatea denon gainean da. Gutariko bat zurekin joango da eta lagunduko zaitu”. Kararék bihotz-bihotzez eskertu zien txera ona. Eta igaro zituen aldea guztietan, bai adiskideak bai etsaiak, biztanleen ongi-ulertzea eta laguntza lortu zituen.

Kontakizun labor solidarioen lehiaketa // Concurso de relatos breves solidarios

Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko
Campuseko Errektoreordetzak
babestutako lehiaketa



Concurso patrocinado por el Vicerrectorado de
Campus de Bizkaia de la Universidad del País
Vasco

Bidera irten nintzen eta nire moduko beste batzuekin elkartu nintzen. Jende ona aurkitu genuen baina baita lapurrak eta gezurtiak ere. Sufritu nuen asko baina aurrera segitzea lortu nuen.

Kararé eta lagunak ibilian ibiliz lehoiarekin topatu ziren. Mesfidantzaz elkar begiratu zuten, gizakia eta lehoia etsaiak baitira. Eta esan zien: “Nola ausartzen zarete nire lurretatik igarotzen? Zeren bila zabilzate?” Kararé adoretu egin zen eta erantzun zion: “Gure aldeek sufritu egiten dute ibaia siku hurran dator eta. Pasatzen uztea eskatzen dizugu, irtenbidea topatu behar dugu eta; osterantzean gure familiak hil egingo dira.” Lehoiak pentsatu egin zuen une batez eta horrela mintzatu zion: “Askotan elkarrekin borrokatu dugun arren, lur berbera partekatzen dugu eta zeuen sufrikarioak ez du izan behar ezaxola niretzat. Zeuekin joango naiz eta lagunduko zaituztet.” Denak poztu ziren lehoia aliatu gisa edukitzearren. Era berean animalia asko elkartu zitzairen. Eta bideak mendi kate handiaren aurreraino eraman zituen.

Desertu handiak itxaroten ninduen. Bakarrik egitea zorakeria zitekeen. Denon artean, pairamen handien ondoren, hesi hori ere gainditu egin genuen.

Latza izan zen, baina batzuek eta besteek elkarri lagundu zieten, eta zeharkatzea lortu zuten. Han urrutian ikusi zuten harri-jausi handi batek ibaibidea desbideratu zuela. Lanean hasi ziren bere onera ekartzeko. Eta berriro gerta ez zedin lanean jarraitu zuten, etorkizuna ziurtatzeko. Bukatzerakoan, lana ona zela ikusi zuten eta euren aldeetara eta lurretara itzuli ziren. Eta denek, gizakiok eta animalioek, lagunak eta aurkariak, ulertu zuten ura bedeinkazioa zela guztiontzat eta guztiak elkartu egiten zituela.

Hesi bat genuen aurrean, beste bat. Askosaiatu ginen jauzi egiten, baina gutxi batzuk baino ez zuten lortu. Nik, ez. Gizon batzuk atxilotu gintuzten, jipoitu, eta desertu handian largatu. Desesperoak jo ninduen. Nire zenbait lagunak amore eman zuten. Nik ezingo nuen egin, aldeako bide-bilatzailea nintzen. Berriro abiatu nintzen. Baina desertu handia ez da eskuzabal; ez, bakarrik baldin bazaude.

Eta Kararé aldeara itzuli zenean, txalotua izan zen eta lehen bide-bilatzaile aldarrikatu zuten. Eta bere abentura abestu zuen haizetara, bukaera honela emanez: “Behar zaituenari lagun egiozu, bera lagundu ezkerok zuk ere irazbazi egingo duzu eta. Denek



Fondo de Solidaridad 0,7% de la UPV/EHU
UPV/EHU %0,7 Elkartasun Fondoa

<http://www.ehu.es/rowupv07/>

Kontakizun labur solidarioen lehiaketa // Concurso de relatos breves solidarios

Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko
Campuseko Errektoreordetzak
babestutako lehiaketa



Concurso patrocinado por el Vicerrectorado de
Campus de Bizkaia de la Universidad del País
Vasco

partekatzen dugu lurra eta horrek anaiak bihurtzen gaitu". Eta harrezkero haizeak eramaten du bere abestia munduan zehar, gizakiek entzun eta ikas dezaten.

Ez nuen izan Kararé-ren zortea: gurutzatu nituenek ez zekiten haren abestia. Orain, nire gorpua lurrera itzultzera doan unean, nire istorioa abesten dut, haizetara, zuek entzun dezazuen.

Eta zuk, entzuten ikas ezazu, zeren istorio guztiak zure istorio baitira.

Nire izena zen Ngoro.